

Imanol Galfarsoro Madariaga

## Sinesmen sendoko pentsalaria

Esker onez hasiko naiz. Zure hitzek nire ibilbidea markatu zuten: *Nomadologia subalternoak* (Pamiela, 2005) saiakera-bildumari idatzitako iruzkin ederra eta *Subordinazioaren kontra* (Pamiela, 2007) liburuari eskainitako aitzinsolasa opari preziatuak izan ziren. Babes hori sinesgaitza egin zitzaidan orduan. Orain, hogeitaz beranduago, zure omenez idazten dut. Omenaldi hau intelektuala baino politikoagoa izango da, zure izpirituari leial.

Joxe Azurmendi ez zen-eta soilik filosofo, saiakera-egile eta poeta; aktibista eta militantea zen, burkidea, euskararen eta herri langilearen aldeko borroka intelektualean buru-belarri murgildu zena, sinesmen sendoa eta tinkoa gidari. Zentzu horretan, haren pentsamenduan eta jarrerara pertsonalean, oro har, betiereko mamu frantziskotarraren eragin sakonak iraungo zuen.

Bai, Azurmendi Erdi Aroko moja eta fraideen izate eta pentsamolde eredugarriarekin bat etorriko da. Ohiz salatuko dituen Moderniaren eta razionaltasunaren ikusbide harroputzean errotuta, ohitura akademikoak dogma eta ilunkeriarekin lotzen du Erdi Aroa.

Pixka bat, bestalde, razionaltasun ilustratuaren balioak ordezkatu nahi dituzten inguruko zenbait jauntxo jakitunen-edo erara. Dogmatikoak, ortodoxoak, sektarioak...

Hara hor, besteak beste, Azurmendik babestu eta bultzatuko zuen askapen nazional eta sozialaren subjektu politikoa desitxuratzeko salaketa ezagunak.

Erdi Aroko moja eta fraideen adibideak, baina, zera erakusten digu: Errebelazio kristauan zuten sinesmena sendoa zen, dogman oinarritua, guztiz. Alta, sinesmen tinko horrekiko Antzinateko maisu greko-latin-

darren eta arabiarren jakintza arrotzak, baztertu beharrean, zer eta, bilduz gain, landu egin zituzten.

Alain Badiouk argitzen duen erara, hemendik atera beharreko ideia orokorra zera da: «Lehenbiziko sinesmen edo fedearen gainean, bigarren razionaltasun bat kontraesanik gabe artikulatu daiteke». Aipamen hori argigarria da, metafora gisa. Azurmendiren ekarpen intelektuala euskal askapen prozesuaren garapen historikoan ulertzeko balio digu; baita haren posizio politikoa askapen nazional eta sozialaren testuinguruan kokatzeko ere.

Ez, Euskal Herriaren askatasun politikoan sinesmen sendoa ez da oztopo sinesmen partikular horrekiko arrotza dirudien giza berdintasun unibertsalaren ideia berreskuratu eta lantzeko. Ez dago kontraesanik!

Egotekotan, askoz ere kontraesan gehiago dago *demokratak eta biolentoak* banatzen saiatzen direnengan. Hori bai propaganda: «Demokrazia ez da perfektua baina diktadurak baino hobea da. Palestinarrak gure hegazkinetatik botatako gure bonbekin akabatzen dituzte, baina gutxienez ez diegu eztarria matxetez mozten Ruandan-eta egiten duten bezala».

Ederto, bai... Baina indarkeria politikoaren auziarekin amaitzeko bizpahiru ohar, Azurmendi gogoan.

Bat: «Indarkeria datorren lekutik datorrela gaitzetsi», «Indarkeria helburu politikoak lortzeko erabiltzea ez da zilegi» eta horrelako kontsigna eta kliseak balio gutxikoak ziren Azurmendiren pentsamendu etikoan. Aitzitik, fikzio demokratikoaren tresna erabat propagandazko gisa soilik dira baliagarriak.

Bi: Batzuetan, indarkeria saihetsezina da, batez ere aurkariak indarkeria erabiltzea zalantzan jartzen ez dutenean; ondorioz, horren aurrean prestatuta egon beharra dago.

Hiru: Indarkeriaren erabilerari lotuta, baina, beste aldea hor dago. Indarkeria gutxitan baita ona, eta ahal den neurrian saihestu behar da, hura erabili gabe helburuak lor badaitezke askoz ere hobe den heinean.

Joxe Azurmendi: zure borroka intelektualaren oihartzunak guregan jarraitzen du; zure pentsamendu erradikalak erreferentziazkoa izaten jarraituko du, Euskal Herrian bizi dugun borroka armatu intsurgen-terik gabeko sekuentzia politiko emantzipatzaile berrian.